Urteko jarraipen-txostena
EZKERRALDEA-MEATZALDEKO ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA
2022

BIC BIZKAIA EZKERRALDEA UP! EUSKADI

Ezkerraldea-Meatzaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoko 36 jarduketa.

Jarduketa horien helburua lehentasunezko jarduketa-eremuak indartzea da, zenbait funtsezko eremutan: ekonomiaren suspertzea, enplegua, gizarte-kohesioa, hiri-berroneratzea eta mugikortasuna eta jasangarritasuna.

6 proiektu eragile

1. EZKERRALDEA-MEATZALDEA PARKE TEKONOLOGIKOA
   5 jarduketa.

2. OSASUN POLOA: MED TECH PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK
   2 jarduketa.

3. KUTSATUTAKO LURZORUAK BERRESKURATZEA
   4 jarduketa.

4. AUZO KALTEBEREN JARDUKETA INTEGRALA
   6 jarduketa.

5. GARRAIO JASANGARRIAREN EREDUA. BILBO-MUSKIZ C2 LINEAKO JARDUKETA
   2 jarduketa.

6. INDUSTRIA-ONDAREAREN ETA ITSASADARRAREN BALORIZAZIOA
   17 jarduketa.

36
JARDUKETA

EZKERRALDEA MEATZALDEA	EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETAK
EM1 Ezkerraldea/Meatzaldea Parke Teknologikoa	María Telkes eraikina Ortuellan lursailak erostea
EM2 Osasun Poloa: Med-Tech produktuak eta zerbitzuak	Inbertsioa kokapenean Enpresa biosanitarioen eraikina
EM3 Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea	Burtzeña Parkea (lurzoruak erosi eta erremediatzea) Plaiabarri eta Sakoni, Erandio (lurzoruak erosi eta erremediatzea) Etxeuli, Santurtzi (lurrak erosi eta erremediatzea) Navacel eraikina (erostea eta birgaitzea)
EM4 Auzo kalteberen jarduketa integrala	ABANTO-ZIERBENA Las Peñucas auzoa (200 etxebizitza) PORTUGALETE Esku-hartzea GRUMETE DIEGO kalean (23 etxebizitza) SANTURTZI Esku-hartze AURORA VILDÓSOLAn (104 etxebizitza) TRAPAGARAN Esku-hartzea SAN ANDRES auzoan (135 etxebizitzaren eremua) TRAPAGARAN Esku-hartzea SAN ANDRES auzoan (60 etxebizitzaren eremua)
EM5 C2 lineako jarduketa	Urbinagako aldageltokiko jarduketa
EM6 Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa	Sestaoko labe garaiko jarduketa Orconera industria-ondarearen zentroko jarduketa Ezkerraldeko langileen ibilbidea RENFEko geltoki historikoak + tren historikoa egokitzea Gasolinoa Rialia Museoa birbideratzea Bisitariei harrera egiteko lekua Sorospen Etxean + langileen etxebizitzan Burdin Mendien Bide Berdea Itsalur Bide Berdea eta Kantabriako konexioa egokitzea Seinaleztapena+ promozioaren posizionamendu-plana + prestakuntza teknikoa + gobernantza-eredua Agurtza hegaluze-ontzia birgaitzea AHV lokomotorra berreskuratzea

EZKERRALDEA MEATZALDEA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETAK
EM1 Ezkerraldea/Meatzaldea Parke Teknologikoa	Energy Inteligence Center eta egoitza-eraikina EMPTrako sarbideak eta urbanizazioa Ekipamendua
EM2 Osasun Poloa: Med-Tech produktuak eta	Lankidetza sailburuordetzarekin
EM4 Auzo kalteberen jarduketa integrala	Etxetic proiektua
EM5 Mugikortasun jasangarria / C2 lineako jarduketa	Bizkaia Bizi
EM6 Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa	Labe garaia Sorospen Etxea birgaitzea eta turismo-bulego bihurtzea Erandioko bulebarra Barakaldo-Erandio zubia Bidegorria (Bilbo-Barakaldo) Pobaleko burdinola 1000 Gradutan

1.1. JARDUKETEN AURRERAPEN-MAILA



Amaituta	6
Egikaritzen	24
Diseinatzen	5
Hasi gabe	1
Bertan behera utzia	0

1.3. EUSKO JAURLARITZAREN BERPIZTU JARDUKETEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

EM 1

Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Tekonologikoa

10.000.000 €
10.000.000 €

EM 2

Osasun poloa: Med-Tech produktuak eta zerbitzuak

10.000.000 €
4.100.000 €

EM 3

Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea

60.000.000 €
55.151.425 €

EM 4

Jarduketa integrala auzo kalteberetan

14.000.000 €
7.932.500 €

EM 5

Garraio jasangarriaren eredua. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa

4.000.000 €
0 €

EM 6

6. Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa

10.000.000 €
8.131.059 €



EM 1	% 100
EM 2	% 41
EM 3	% 92
EM 4	% 56,6
EM 5	% 0
EM 6	% 81,3

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Betearazitako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Betearazitako aurrekontua	Aurrekontuaren betearazpena
108.000.000 €	**85.314.984 €**	**% 79**

1.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

EM 1

Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Tekonologikoa

29.079.529 €
23.981.076 €

EM 2

Osasun poloa: Med-Tech produktuak eta zerbitzuak

500.000 €
0 €

EM 3

Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea

0 €
0 €

EM 4

Jarduketa integrala auzo kalteberetan

1.850.000 €
0 €

EM 5

Garraio jasangarriaren eredua. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa

0 €
0 €

EM 6

6. Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa

35.950.275 €
2.986.482 €

EM 1	% 82
EM 2	% 0
EM 3	-
EM 4	% 0
EM 5	-
EM 6	% 8

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Betearazitako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Betearazitako aurrekontua	Aurrekontuaren betearazpena
67.379.804 €	**26.967.558 €**	**% 40**

1.4. PROIEKTU ERAGILEEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

PROIEKTU ERAGILEAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUA	BETEARAZIA	% betearazia
EM1	Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa + EIC	EJ	46.195.267	43.097.301	% 93,29
		BFA	29.079.529	23.981.076	% 82
		GUZTIRA	**75.274.796**	**67.078.377**	**% 89**
EM2	Osasun Poloa. Osasun-sistemara bideratutako produktuak eta zerbitzuak garatzeko nodoa	EJ	10.000.000	4.100.000	% 41
		BFA	500.000	0	% 0
		GUZTIRA	**10.500.000**	**4.100.000**	**% 39**
EM3	Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea	EJ	60.000.000	55.151.425	% 92
		BFA	-	-	-
		GUZTIRA	**60.000.000**	**55.151.425**	**% 92**
EM4	Auzo kalteberen jarduketa integrala	EJ	14.000.000	7.932.500	% 57
		BFA	1.850.000	0	% 0
		GUZTIRA	**15.850.000**	**7.932.500**	**% 50**
EM5	Garraio jasangarriaren eredua. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa	EJ	4.000.000	0	% 0
		BFA	-	-	-
		GUZTIRA	**4.000.000**	**0**	**% 0**
EM6	Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa	EJ	10.000.000	8.131.059	% 81
		BFA	35.950.275	2.986.482	% 8
		GUZTIRA	**45.950.275**	**11.067.541**	**% 24**
EM EPE GUZTIRA			**211.575.071**	**145.379.843**	**% 69**
EUSKO JAURLARITZA			**144.195.267**	**118.412.285**	**% 82,12**
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			**67.379.804**	**26.967.558**	**% 40**

EM1. Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa + EIC

PARKE TEKNOLOGIKOA: Abantoko udalerrian kokatuta, parke berriak 500.000 metro koadroko azalera du, eta horietatik 241.000 eraikigarriak dira.

SARBIDEAK ETA URBANIZAZIOA: Parkera sartzeko lanak 2019ko urrian hasi ziren eta 2021eko urrian amaitu.

EIC + EGOITZA-ERAIKINA: Jarduketa honen amaiera 2023ko martxorako aurreikusita dago. Eraikinek 10.047 metro koadro dituzte, eta 7.049 metro okupatuta daude. EIC zentroak 5.628 metro ditu; bulegoak eta laborategiak dituzten lau solairutan eta industria-nabe batean dago banatuta, eta % 98ko okupazio-maila du. Egoitzak, berriz, 4.419 metro eta % 34ko okupazio-maila ditu. Bi eraikinek instalazioak partekatuko dituzte, hala nola, bi eraikinetara sartzeko atari komuna edo eraikineko sotoetan dauden aparkalekuak.

EKIPAMENDUA: Laborategiak 2023ko ekainean martxan egotea aurreikusten da, eta makinak 2024ko lehen hiruhilekoan martxan egongo direla uste da.

MARIA TELKES: Eraikinak 8.700 metro koadro ditu, 6 solairutan banatuta. 2022. urtean obra-proiektua lizitatu eta adjudikatu egin da.

ELIKAGAIEN CAMPUSA: Ortuellako Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoan instalatuko da. 2027an martxan jartzea aurreikusten da, 50 hektareako azalerarekin. Gaur egun, lursailaren % 41 titulartasun publikokoa da (135.000 metro Teknologi Elkartegia SArenak dira eta 50.000 metro Ortuellako Udalarenak).

María Telkes

Egoitza-eraikina eta EIC

EM2. Osasun Poloa Med Tech produktuak eta zerbitzuak

SESTAON LURSAILA EROSTEA: SPRILURek lurzati bat erosi du Sestaon, enpresa biosanitarioen poloko eraikin bat bertan kokatzeko.

ENPRESA BIOSANITARIOEN ERAIKINA: 2022. urtean, proiektua idazteko pleguak prestatzen aritu dira, eta proiektua idatzi ondoren, 2023an obra lizitatu ahal izango dela aurreikusten da.

EM3. Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea

BURTZEÑA: Lurzoruaren jabetzaren % 60 dute. 2021ean IHOBE-SPRILUR lantalde bat sortu zen ingurumen-espedienteen izapideak bizkortzeko. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin izapidetzen ari da lurzoruen erremediatzea, eta 2023an has daitekeela pentsatzen da.

PLAIABARRI–SAKONI ERANDIO: Hainbat jaberekin egin dira lurzoru-erosketak, eta jabetzaren gehiengoa eskuratu da sektore guztietan.

ETXEULI SANTURTZI: Lurzatia erosi da, eta ingurumen-izapideak egiten ari dira Ingurumen Sailarekin, zabortegia zigilatzeko, eta URArekin, lehendik dagoen ibaia kapsulatzeko. Lurzoruak erremediatzeko obrak 2023an egitea aurreikusten da.

NAVACEL TRAPAGARAN: 2021eko abenduan pabiloia erosi zen eta gaur egun eraikina birgaitzeko proiektu bat idazten ari dira.

Burtzeña

Etxeuli-Santurtzi

EM4. Auzo kalteberen jarduketa integrala

ABANTO-ZIERBENA: 200 etxebizitza Peñucasen.

PORTUGALETE: 23 etxebizitza Grumete kalean.

SANTURTZI: 104 etxebizitza Aurora Vildósolan.

TRAPAGARAN: 198 etxebizitza San Andres auzoan.

EM5. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa. Garraio jasangarriaren eredua.

URBINAGAKO ALDAGELTOKIA: Eraikuntza-proiektua 2019an idatzi zen, eta, ondoren, eraikuntza- eta finantzaketa-hitzarmenaren zirriborroa idatzi zen Bizkaiko Garraio Partzuergoaren eta ADIFen artean.

2021eko urtarrilean, ADIFek trenbide-diseinuaren metodologia eguneratu zuen hainbat alderditan, eta, beraz, beharrezkoa da une honetan gauzatzen ari den eraikuntza-proiektua berriro idaztea.

Proiektua 2023ko uda amaierarako eguneratuko dela aurreikusten da, eta behin eguneratuta, beharrezkoa izango da administrazio publiko bakoitzean (BGP eta ADIF) barneko izapideak hastea hitzarmena onesteko, sinatzeko eta ADIFek obren lizitazioaren izapideak hasteko. Lizitazio hori 2024ko bigarren seihilekoan egin ahal izango dela uste da.

BIZKAI BIZI: Jarduketa honen xedea lurraldeen arteko mugikortasun jasangarria sustatzea da. Ezkerraldean, Santurtzi (45 bizikleta eta 5 geltoki), Portugalete (45 bizikleta eta 5 geltoki), Sestao (35 bizikleta eta 4 geltoki) eta Barakaldo (200 bizikleta eta 25 geltoki) atxiki dira jarduketara.

Proiektua lizitatuta eta adjudikatuta dago. Mugikortasun-proiektu hori garatzeko, bi programa osagarri ere ezarri dira: BIZIPUNTO, bizikletak konpontzeko eta garbitzeko geltokiak, erabilera librekoak eta doakoak, eta BIZIPARK, bizikletentzako aparkaleku seguruak. Horien helburua herritarren artean bizikleten, eta, zehazki, bizikleta partikularren ohiko erabilera sustatzea da.




bizkaibizi

EM6. Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa

INDUSTRIA-ONDAREA BERRESKURATZEA - INTERPERETAZIO-ZENTROA:

- Labe garaia (irisgarritasuna hobetzea eta balioa ematea)
- Orconera ondare-zentroa (bi pabiloi berreskuratzea, erdiko pabiloi bat eraikitzea eta industria-ondareko 1.800 pieza lekuz aldatzea)
- Pobaleko burdinola (gurpila eta hauspoa berreskuratzea eta ubidea hobetzeko proiektua egitea)
- Rialia Museoa (klimatizazio-baldintzak egokitzea, espazioak eta ekipamenduak berrantolatzea)
- Sorospen Etxea (turismo-informazioko zentro eta dibulgazio-gune bihurtzeko proiektua)

ONDAREA BERRESKURATZEA - TURISMO-ESKAINTZA: Industria-ondarea berreskuratzen ari dira, eta baliozko eskaintza kultural eta turistikoa sortzen itsasadarraren inguruan (Renfeko estazio historikoak, langileen etxebizitza, Itsaslur, Burdin Mendien Bide Berdea, Agurtza hegaluze-ontzia, AHV lokomotorra).

ITSASADARRAREN INGURUKO MUGIKORTASUNA ETA KOHESIOA:

- Erandioko bulebarra (tarte bat 2023ko lehen seihilekoan hastea aurreikusten da)
- Zubi mugikorra (proiektua idaztea amaituta, obrak 2023an hastea aurreikusten da)
- Barakaldo-Bilbo bidegorria (egikaritzen)

TURISMOA SUSTATZEKO EKITALDIAK: Eskualdean, Acuatlon Portugalete eta 1000 GRADUTAN musika-zikloa ospatu dira Pobaleko Burdinolan eta Ilgner eraikinean.

Labe
garaia

Orconera industria-ondarearen zentroa

Lutxanako geltokia

Sorospen Etxea (Turismo Bulegoa)

Gasolinoa

Itsaslur Bide Berdea

Agurtza hegaluze-ontzia

Burdin Mendien Bide Berdea

AHV lokomotorra

Erandioko bulebarra



Erandio-Barakaldo zubia

Barakaldoko bidegorria